

392/2024 EBAZPENA, MAIATZAREN 27KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN LETRADU KORPORATIBO LANPOSTU BATZUK BETETZEKO PROZESUAREN BARRUAN EGINDAKO PROBA PRAKTIKOAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN WEBGUNEAN ARGITARATZEKO AGINTZEN DUENA.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Instrukzioaren bidez ezartzen da letradu korporatiboaren lanpostuak aldi baterako betetzeko deialdi espezifikoa egingo dela, jarraibide horren eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, ezartzen da ezen, bidegabeko atzerapenik gerta ez dadin, ekitaldi berean deitu ahal izango dela destinoak aldi baterako betetzeko aurreikusitako sistema guztietarako, eta ebazpenean honako erabaki hauetan adierazitako lehentasun-ordena errespetatuko dela: Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez eta aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko irizpideak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez betetzeko irizpide orokorrak, eta 2021eko uztailaren 21eko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzekoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 13ko 188/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian letradu korporatiboaren lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen, behin-behineko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez.

Egun berean, 2024ko martxoaren 13an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen webgunean iragarki bat argitaratu zen, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian (Gipuzkoako egoitzan) hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko deialdi espezifikoaren eskaintza eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian (Arabako egoitzan) aldi baterako ezintasunagatiko abokatu korporatiboaren ordezkapenaren eskaintza jasotzen zituena, Goi Mailako Teknikari Juridiko-letradu kategorian indarrean dauden aldi baterako kontratazio-zerrendetako kideentzat. Lanpostua premiaz bete behar denez, kautelaz, idatzizko proba egiteko deia egiten zaie eskatzaile guztiei.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 13ko 190/2024 Ebazpenaren bidez, deskribatutako lanpostuak betetzeko balorazio-batzordeko kideak izendatu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 15eko 195/2024 Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen martxoaren 13ko 188/2024 Ebazpena, luzatu egin zen aldi baterako barne-mugikortasuneko, aldi baterako barne-sustapeneko eta zerbitzu-eginkizunetako izangaien eskabideak aurkezteko epea, eta idatzizko proba deitu zen 2024ko apirilaren 24rako. Era berean, abisu bat argitaratu zen martxoaren 15ean bertan, indarrean dagoen aldi baterako kontratazio-zerrendako pertsoniei epeak luzatu zaizkiela jakinarazteko.



2024ko apirilaren 11n, beste iragarki bat argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren aldi baterako kontratazio-zerrenden webgunean, eta jakinarazi zen eskaintza handitu egin zela, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Gipuzkoako egoitzan aldi baterako ezintasunagatiko ordezkapen bat betez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 18ko 281/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian letradu korporatiboaren lanpostu horiek aldi baterako barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez eta aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu zen.

2024ko maiatzaren 6an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu zen plikak irekitzeko iragarkia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren ekitaldi-aretoan, maiatzaren 9an, 11:00etan. Halaber, iragarki hori argitaratu dela jakinarazten zaie prozesuan interesa duten pertsoneri.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 10eko 334/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian letradu korporatiboaren lanpostuak aldi baterako eta behin-behineko barne-mugikortasunaren/aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 15eko 354/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian letradu korporatibo lanpostu batzuk betetzeko prozesuaren barruan egindako proba praktikoaren behin-behineko emaitzak web-orrian argitaratzeko agindu zen.

Erreklamazio-epaia igaro da, eta parte-hartzaileek ez dute alegaziorik egin. Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.** – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian argitaratzeko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian letradu korporatibo lanpostu batzuk betetzeko hautaketa-prozesuaren barruan egindako proba praktikoa gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda. 1. Eranskina.

**Bigarrena.** – Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren 4/2021 Jarraibidean, abokatu korporatiboaren lanpostu funtzionalak aldi baterako betetzeari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

 **Osakidetza**  
Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 27a

Luisa Larrauri Ereñozaga  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria,  
Luisa Larrauri Ereñozaga

1 LEHENTASUNA. ZERBITZU EGINKIZUNAK							
PRIORIDAD 1. COMISIÓN DE SERVICIOS.							
NAN/DNI	LEHEN ABIZENA/PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA/SEGUNDO APELLIDO	IZENA /NOMBRE	EUSKARA ESKAKIZUNA/PERFIL DE EUSKERA	EUSKERA PERFIL PUNTUACIÓN PERFIL	PUNTUACIÓN PRUEBA PRÁCTICA /AZTERKETAREN EMAITZA	PUNTUACIÓN TOTAL /GUZTIZKO PUNTUAZIOA
***7612**	SÁNCHEZ	MATEOS	CARLOS	3	27	7,7	37,7

2. LEHENTASUNA, 2021 EKO KONTRATAZIO ZERRENDAN DAUDEN PERTSONAK							
PRIORIDAD 2. INTEGRANTES DE LAS LISTAS DE CONTRATACIÓN 2021							
NAN/DNI	LEHEN ABIZENA/PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA/SEGUNDO APELLIDO	IZENA /NOMBRE	EUSKARA ESKAKIZUNA/PERFIL DE EUSKERA	EUSKERA PERFIL PUNTUACIÓN PERFIL	PUNTUACIÓN PRUEBA PRÁCTICA /AZTERKETAREN EMAITZA	PUNTUACIÓN TOTAL /GUZTIZKO PUNTUAZIOA
***8957**	MACHO	PEÑA	MIREN	3	27	5,4	35,4
***3170**	GARCÍA	PASCUAL	JAVIER	1	9	5,7	15,7